

URDAIBAI

© MAGAZINE

2019
zenb. 19

Opjuduam Arrola

Urdaibaiko herrixka indigena

Un poblado indigena en Urdaibai
A native settlement in Urdaibai

Hilen etxea.

Arroila inguruan ez da herririk sortutako nekropolirik ageri. Honek ez du galaraten existitu zenaren zuzantiarik ezagutzeko ferrisak, hioibi eta hilarren egiturak, inguruko beste kastroetan oinarrituz.

Bundri Arriak Europa Errialderik dazaren hilen erakusketak erribu garmatzen da. Hildakoa jantzia, janari eta objektuekin laguntuta, erakusten duze txondor baten gainean. Hondarrik kutxa baten gaine: rdo zuzentzen hioibiatzen ziren nekropolaren barruan. Herrixketako kanpoko espazioak erabiltzen zituzten funtziak bua boteziko.

Nekropolisak tumulu txikiak okupatutako espazioak dira, barrualdean kutxa sartzen zirela. Bataztert, kutxa estria baten leizek markatzen zuten. Bukiak gurutzet formako edo okertutako erradio erdian formako dekorazioak agertu dira. Aie zaharrenak dama juku taularen formako motiboiak (Berreaga) eta galituro formakoak (Bastazar-Gastiluro) dira.

La casa de los muertos.

En el entorno de Arroila no se ha localizado con certeza la necrópolis que debió generar este poblado. Esto no impide que se puedan señalar las características (ferris, estructuras funerarias y estelas) que pudo haber tenido, en función de lo conocido en otros castros del entorno.

Durante la Edad del Hierro se introduce desde Centroeuropa el rito de la cremación de los cadáveres. El difunto, vestido y acompañado de objetos y comida, es incinerado sobre una pira de leña. Los restos se recogen luego en una urna, o se entierran directamente en el suelo de las necrópolis, que son los espacios exteriores a los poblados reservados para tal fin.

Las necrópolis eran espacios ocupados por pequeños tumulos en cuyo interior se depositaba la urna. En ocasiones, el lugar se marcaba con una estela que, en ocasiones, suele presentar decoraciones cruciformes o en forma de triángulo curvo. Los ejemplos más antiguos son los tumulos en damero (Berreaga) y los de galituro (Bastazar-Gastiluro).

Death.

The necropolis has not been found. Due to the lack of archaeological evidence, it is not possible to determine when it was used. They later placed them in the ground, covered with earth, with a funerary urn.

KULTURAK ETA IRAUNKORTASUNAK GELA PARTEKATZEN DABE ARROLAGUNEN

- PEIO GORROÑO, EGOIN
- LANDAZABAL ATLANTIKOA
- ISPIZUA TAR SEGUNDO

- KALABAZA, UDAZKENEKO ERREGINA
- FORUKO LARRU-LANTEGIA
- VISIT URDAIBAICO TOPAK

Txertoa jartzeko unea da

ETA BADAKIZU

GRIPEAREN AURKAKO 2019KO TXERTAKETA KANPAINA
65 urtetik gora dituztenentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat
eta haurdun dauden emakumeentzat.

Urriaren 14tik aurrera



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

MUNDU OSOAN

Urdaibai Magazinek sareetan pizten dauen interes bikain eta espontaneo balio handia da. Eskualdeko aldizkari bat argitaratzen dogu eta honen interesa mundu osoan zabaldu da.

URDAIBAI MAGAZINE proiektua Busturialdean bizi garen pertsonak zerbitzatzeko eta tokiko gizarte kohesioan laguntzeko bokazioagaz sortu zan. Gure ahalegina geure errealitate ekonomikoa, landatarra, arrantzakoa, kulturala, ondarezkoa, naturala, soziala, kirolekoa, musikala... partekatzeko komunikabide ona izatera zuzenduta dago, azken batean, geure nortasuna.

Paperezko edizioaren harrera onak online edizioa garatzera eraman ginduan, eta datu objektiboez argi uzten dabe edizio digitalagaz eskualdea, lurraldea eta Euskadi gainditzen doguzela. Arrakasta horrek aukera ematen deusku tokiko eragileei eta tokikoak ez direnei beren marka eta produktuen publizitatea egiteko komunikabide errentagarri bat eskaintzeko; eta eraginkorra, gure udalerririk eta eskualdea aisialdi kultural eta naturalerako helmuga gisa sustatzeko, bai eta turismo-helmuga jasagarri gisa be, barnealdeko eta nazioarteko turismoa erakartzeko.

Urdaibai Magazineko edukiak ez dira gaurkotasan amorratukoak. Bere orrialdeetan batez be IDENTITATEA eskaintzen dogu, bai gai ekonomikoak jorratzen doguzenean, bai gai sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, gastronomikoak, ... edo beste edozein motatakoak argitaratzen doguzenean. Urdaibai/Busturialdearen nortasuna eta euskal nortasuna argitaratzen doguzen lerro bakoitzean eta irudi bakoitzean azaleratzen dira

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo

Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

www.nuevaeuropa.eus


LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.




ERREPORTAJEA

04



VISIT URDAIBAI

10



ELKARRIZKETA

12



BETI-JAI

30

08 ZENBAT BURU...

KOLABORAZIOAK

- Esther Korta
- Garikoitz Rios
- Ugaitz Gaztelu
- Amagoia Lopez De Larruzea

18 LEKUKO

FORUKO LARRU-LANTEGIA

22 KALERIK KALE

ISPIZUA TAR SEGUNDO

26 SALTSA-PORRU

KALABAZA

28 BERDEAN

LANDAZABAL ATLANTIKOA

KULTURAK ETA IRAUNKORTASUNAK GELA PARTEKATZEN DABE ARROLAGUNEN

Eskola umeek Arrolako aztarnategia bisitatzen dabe urtero

Iraunkortasunak gizartearen esparru guztiak gainditzen dauz, eta kultura, zalantza barik, funtsezko eremua da garapen jasangarri baterako. Kultura geure parte da, gure esentzia da, eta gure nortasuna eraikitzen dau. Kultura barik garapen iraunkorra ez da existitzen. Gure tokiko kultura eta herentzia historikoa balioan jartzea belaunaldi barriei transmititzetik hasten da. Ildo hau jarraitzen da Arrolagunen.

Nazioarteko erakundeek gero eta indar handiagoz txertatu dabe kulturaren dimentsioa garapen-ekintzetan. Arlo honetan zeregin garrantzitsua daukeen UNESCO bezalako erakundeek kulturaren ikuspegi aldean sustatzen dabe. Kultur jardueretarako aukera eta baldintzak oinarriko askatasunen artean dagoz, garapenari estuki lotuak.

Kultura errealitate zentrala da, eta bere eginkizuna Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GJH) dago, zeharkako ikuspegi batez, kalitatezko hezkuntzari, ingurumenaren kudeaketari, hazkunde ekonomikoaren ereduari eta hirien

bilakaera jasangarriari datxekiolako. Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Basque Country 2030 agendan jasotako garapen jasangarriko helburuen esparruan, eta NBERen Giza Garapenerako Estrategiagaz lerrotuta, funtsezkoa da tokiko kultura-ondareari buruzko ezagutza dinamizatuko eta sustatuko dauen estrategia bat bultzatzea, maila guztietan garapen jasangarria sustatzeko. Herrialde, komunitate edo herri baten iraganari buruzko ulermen argiago eta zabalago bat sustatzeak, bere historia kulturala "exploratuz", "eraikitzen" laguntzen dau.

Ildo horretan kokatzen da Arrolagunek, Arrolako



oppidumaren Interpretazio Zentroak, 2017az geroztik garatzen dauden hedapen-proiektua, Bizkaiko Foru Aldundiak Urdaibaiko aztarnategi horretan egindako indusketa, ikerketa eta dibulgazio-lanak geure erkidegoaren (Euskal Autonomia Erkidegoaren) garapenaren eta aurrerapenaren zerbitzura jartzeko. Historiaren oroitzapena aliadu garrantzitsua da tolerantziaren eta aniztasunaren laborantzan, garapenaren ezaugarri nabarmenak baitira.

Ezagutzen al dabe gure seme-alabek Urdaibaiko historia?

Gure ondare historiko-kulturalaren esanahia ezagutzea eta gozatzea da ha maitatzeko eta zaintzeko bermerik onena. Helburu honegaz planteatu da Arrolaguneren kudeaketa. Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Sailak 2000. urteaz geroztik Arrolako *oppidumean* egindako indusketa, ikerketa eta zaharberritze lan guztiak zentzua dauko, baldin eta partekatzen bada, bereziki hemen bizi garenekaz, baina baita Bizkaiko, Euskadiko eta munduko gainerako herriekaz be. Eta batez be belaualdi barriei transmititzen badeutsegu. Hortik, Arrolaguneko *oppidumaren* Interpretazio Zentroak betetzen dauden funtzio estimaezina, arreta berezia jarriz ikasleentzako bisita gidatu didaktikoak dinamizatzen.

Horretarako, gidoi espezifikokoak eta ikasleen adinagaz bat datorren material didaktikoa garatu dira. Horrez gain, hezkuntza eskaintzak plan oso bat be

badakar; bertan, ikasleek eguneko txangoa egin daikee, eta bertan, Arrola mendiaren tontorrean dagoen Arrolako *oppidumeko* aztarnategi arkeologikoa bera be bisitatzeko aukera daukee.

Bisita oso bat da, ingurumen-hezkuntza, aisialdi osasungarria eta tokiko kultura eta historiara hurbiltzea

primeran uztartuz, eta ondarea eta natura errespetatzea bezalako balioak azpimarratuz.

Ikasleak publiko espezifikoa dira, eta funtsezkoa da haiei modu pedagogiko, ludiko eta erakargarrian zuzentzea, haurrek, eta haien bidez familieek, nongotar sentimendua barneratzeari laguntzeko, Bizkaia, nortasuna eta historia daukon lurralde honetako kide direla senti daiezan.

Ikastetxeei zuzendutako Urdaibaiko Ondare Historikoa zabaltzeko kanpainaren hirugarren urte honetan, Arrolako *oppidumaren* aztarnategian zentratua, esan leiteke esperientzia sendotu egin dala hezkuntza-panoraman, eta dagoeneko asko dira ekimenean parte hartzen daberen Busturialdeko eta Bizkaiko ikastetxeak.

Datu kuantitatiboetan azpimarratzearren, apiriletik irailera, hainbat ikastetxetako 760 ikaslek parte hartu dabe Arrolara egindako bisita berezietan. Baina hemen azpimarragarriena datu kualitatiboak dira, lortutako asebetetze-maila: *"motibazioa eta ulermena bultzatzen dauz bisitak"*, *"...bertoko historia eta aztarnategi garrantzitsua aukera ezin hobea dalako"*, *"oso bat egiten dau bisitak eskolan landutakoagaz"*, *"Historia bere testuinguruan ezagutu dogu"*, *"klasetik irten eta zuzenean historia ikusteko aukera da"*,... Horiek eta askoz gehiago dira bisitetara joan diren irakasleek emondako balorazioetako batzuk.



Bisita gidatua Arrolagunen



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIREN alde



Historia klase bat aire zabalean

Arrolako aztarnategi arkeologikora eta bertako Interpretazio Zentrorra, Arratzuko Arrolagunera, egindako bisita didaktikoan Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren paisaiatz eta ingurune naturalaz gozatzen da. Txango ezin hobea da, ikasturtean zehar ikasgelan landutako historiari hurbiltzeko eta "ikutzeko", historia hori gertatu zan lekuan.

Bisita bi zatitan banatzen da: batetik, ikasleek Arrolako aztarnategia bisitatzen dabe Nabarniztik aire zabaleko txango batean. Horrela, sendazaletasuna praktikatzan dabe aparteko ingurune natural honetan, gida espezializatu baten eskutik. Aztarnategi arkeologikoa dagoen tontorrerako igoeran, 534 metroko altueran, kirola, natura, geografia eta historia batzen dira.

Behin tontorrean, Burdin Aroko aztarnategi honen historiari blaituko dira, Kantauri isurialdeko sasoi honetako aztarnategirik garrantzitsuena. Ezagutza eta irudimena batzen dira Bizkaiko historiaren garai garrantzitsu bat "libururik gabeko" klasean barneratzeko. Urdaibaiko biztanleak duela 2300 urte nola bizi ziren *in situ* "haztatzearen" emozioa gehitu behar jako esperientziari.

Bestetik, Arratzura bueltatzerakoan, Arrolagune bisitatzen da, Arratzun kokatuta dagoen Arrolako oppidumaren Interpretazio Zentroa. Gune horrek herrixka gotortuaren bizitza eta usadioak islatzen dauz. Aztarnategi hori zehatz-mehatz erakusten dau, Burdin Aroko defentsarako gotorleku garrantzitsua izan zanaren aztarna, Arrolako oppiduma, Bizkaiko historia ezagutzeko giltzarria.

Arrolagunek, zorrotasun zientifikoagaz, gotorleku indigena honen testuinguru historiko eta kulturala ezagutarazten dau. Kalitate handiko ilustrazioak daukeen 9 panel erakargarrien bidez, Bigarren Burdin Aroko Europaren historia eta oppidaen zibilizazioa zeharkatzen dauz, eta bere defentsarako harresi itzelen garrantzia erakusten dau. Era berean, herriko bizimoduak, hiletarrituak eta Bizkaiko Foru Aldundiak aztarnategiari balioa emoteko egindako arkeologia-lana be ezagutzera ematen dauz.

Arrolaguneko elementurik esanguratsuenetako bat, ikasleei historia modu errealagoan interpretatzen laguntzen deusena, herrixka gotortuko etxola/ etxebizitzaren birsorkuntza da, tamaina naturalean eginda, indusketetan aurkitutako aztarnen arabera eta egindako ikerketa arkeologikoaren lan sakonaren bidez garai hartaz dagoen ezagutzaren arabera. Errealismo osoz, etxebizitza horrek zeramikak, tresnak, gordetzen ebezan elikagaiak, ehungailu bat ... gordetzen dauz, eta ikasleak duela 2300 urte Arrolako biztanleen "etxeko" girora eta bizi-baldintzak ezagutzera eramaten dauz.

Txangoa Arratzu herria ezagutzeko eta bertako landa izaeraren xarmaz gozatzeko aukera be bada.

Kultura, historia eta hezkuntzaren arteko lotura konbinatu perfektua da belaunaldi barriek bizi diren lekuaren historia ezagut daiezan, hura barneratu eta balora daiezan garapenaren eta etorkizunaren ardatz egituratzaile gisa.



Arrolako oppidum-aren aztarnategi arkeologikoaren panoramika (Arratzu)

Arrien Optika



Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es



Lejarraga

BITXIGINTZA - ERLOJUGINTZA

Adolfo Urioste, 2

Tlf: 946 25 06 30

GERNIKA-BIZKAIA



good new energy

Horrelakoa da gure energia. Horrela gara. **Good** gara, duela 50 urtetik pertsonen ongizateari laguntzen diogulako, gas naturalaren azpiegiturak modu seguru eta eraginkorrean erabiliz.

New gara, energia gero eta lehiakorragoa lortzeko zerbitzu eta irtenbide berriak berritu eta garatzen ditugulako.

Energy gara, gogoz eta ilusioz lan egiten dugulako, eta etorkizun jasangarri baterako energiarik garbienetako batekin.

Munduko liderra bere sektorean 2019ko Dow Jones Sustainability-n.



Esther Korta

Euskara irakaslea,
Etniker Bizkaia taldeko kidea,
Euskal Australiar Alkarteko
bokala.
Etnografia ta kultur arloko lanen
egilea.

GURE DIASPORA, GURE HISTORIAREN ZATIA

Faustino 1918an joan zen Winnemuccara (Nevada) artzain. Maletatxua hartu eta trenean joan zen Le Havrera (Frantziara). Handik itsasontzi handi eta jendetsuan "Cedric", New Yorkera heldu zen; jakan itsatsitako paper batean bere datuak eta helmuga jarrita zituela eta ingeleraz berba bat ere ez zekiela itxaron zuen Ellis Islandeko areto nagusian emigrazioa pasatzeko. Paper ugari, galdera gehiago, mediku azterketak. Zer zen hura! Hiru lau urte han mendian. Bakardadean. Inoiz etorri ez banintz ere esango zuen, akaso.

Santi Argentinara joan zen, *tambo* batean hasi zen lanean. Jose Venezuelen patata batzen ibili zen. Victor Kubara joan zen, denda baten egin zuen behar bere negozioa jarri arte. Dirutza egin zuen.

Mexikora, Perura, Txilera... nora ez ziren joan, bada!

Pedro Australiara joan zen. Genovatik itsasontziz Melbournera hilabeteko bidaian eta handik Inghamera kaina ebaten. Lan gogorra eta latza, izerditan, matxetea eskuan eta goilarakada gatza janda. Sasoia amaituta, tabakora edota fruita batzen. Batez ere italianoekin egin zuen lan; inoiz italianotzat ere hartu zuten; izan ere, eurek bezala ikasi zuen hizkuntza. Kanpetxean bizi zen eta asteburuetan Trebonnen batzen ziren lagunak.

Anton, itsas kapitaina, Filipinetan geratu zen, Manilako portuan praktiko. Bertan ezkondu zen. Ignaciok Liverpoolen ikasketak burutu eta Filipinetan, Tabacalera jardun zuen. Joaquinek nabegetan zebilela itsasontzitik salto egin zuen; denboraz lortu zuen egoera legezkatzea eta hiritar egitea.

Emakumeak ere joan ziren ostatutera, ume zain, arrantxo eta farmetan sukaldari, poderez ezkondu, seme-alabekin... Jesusa 16 urterekin joan zen Sacramentoko ostatu batera. Hantxe ezagutu zuen senarra izango zuena, hura ere euskalduna jaiotzaz, ezkondu eta bertan geratu zen.

Zenbat joan ziren! Etxe guztietatik baten bat. Buru beste helburu. Hainbat historia, kontu, bizipen... denak garrantzitsuak bezain hunkigarriak.

Atzerrian euren artean elkartu ziren, euskal kultura mantendu zuten eta ondorengoei transmititu, Euskal etxeak sortu zituzten. Komunitate handi bat dugu munduan zehar. Sare handi bat. Gure Diaspora, gure historiaren zatia.



Garikoitz Ríos

Itsasmendi Upategietako
Zuzendari Teknikoa

TXAKOLI, TRADIZIOA ETA ABANGARDIA URDAIBAIN

1994an Bizkaiko Txakolina jatorri-deitura sortu zanetik, Bizkaian mahastizaintza eta ardogintza bezalako antxinako jarduera berreskuratzeak izugarrizko aberastasuna ekarri dau zuriaren kontsumoa gizartean erabat hedatzeko. Horri esker, mahastizaintzako beste eremu batzuetatik inbidiaz hazi eta garatu ahal izan gara. Sari ugari jaso doguz, prentsa espezializatuan agertu gara eta merkatu barriak zabaldu dira Espainian eta nazioartean, eta, ondorioz, kanpoko interesa sortu da geure eremua ezagutzeko, baita txakolinaren bidez be.

Hondarribi zuri eta Hondarrabi zuri zerratie barietate lokalen hazkuntzan zein kalitatezko ardoak egiteko barietate handi honen ahalmena aztertzean oinarritutako mahastizaintza eta ardogintza-lanari esker, Bizkaiko ezaugarri eko-fisiologikoetan oso errotuta dagoen filosofiaren bidez, Txakolina ardo zurien lehen planoan jarri ahal izan da. Jatorri deitura gutxik egin dabe hainbeste hain denbora gutxian, eta hau nabarmentzeko modukoa da.

Urdaibai birika izan da ezarpen horretan, Txakolinaren aldaketa gidatu dabeen hainbat upategikaz, ardogintzarekiko, paisaiarekiko, historiarekiko eta definitzen gaituen kulturarekiko ahalik eta errespetu handienaz. Agian, etorkizunerako hobekuntza-punturen bat jartzeagatik, datozen urteetarako bi erronka nagusiri buruz hitz egin geinke: merkaturatzea eta enoturismoa, non upategiek arreta-gune eta hobekuntza-eremu garrantzitsuak jarri beharko dogun.

Itsasmendi upategi aitzindaria izan da ikerketaren eta barrikuntzaren bidez produktu barriak egiten, eta hoiek inflexio puntua izan dira gure produktuak izan behar dauenaren kontzepzioan. Etorkizunean jarduerari eustea bermatuko dabeen bide barriak zabalduz, errentagarri bihurtuz nekazaritza bezalako hain lanbide polita duinduz, mendeetan zehar nekazaritazatik bizi izan gara eta.

Gure filosofia naturala, konplexua, etengabe eboluzionatzen ari dana, Biosferaren Erreserba bezala, oinarri sendoa da sektorean hurrengo belaunaldiak jauzi kualitatibo garrantzitsu bat izan daiten.

Hori ezinezkoa izango da eskualdeko azpisektoreen arteko elkarlanerako oinarri sendo bat ehundu barik, kide izatearen, prestigioaren eta, funtsean, aberastasunaren zentzua sortuz.



Ugaitz Gaztelu

Arkitekto Doktorea Ondare
Eraikiaren Eraberritze Jasangarrarian
EHU/UPV.

Eraikuntzaren ingenieritzan
irakaslea.

Ing. Mekanika Saila EHU/UPV

MUGIKORTASUN JASANGARRIARI BEGIRA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN

Kostata baina badirudi klima-aldaketak dakartzan beldurrek garapen jasangarrirako asmoak berraktibatu dituela gure inguru hurbilean.

Honen aurrean, etengabeko kontaminazioari kolpez, jakina da eraikuntza eta industria lehen mailako sektoreen artean daudela; baina hauekin bada ere beste bat maila berean kokatua izan dena: mugikortasuna. Espainiako estatuan bertan, energia kontsumo osoaren %40a edota CO2 emisioen %30a sektore honi dagokio. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren mugikortasunari begiratu gero, norbanakook burutzen ditugun joan etorri guztietatik %24 soilik gauzatzen ditugu garraio publiko bidez. Eta oinezko desplazamenduei begiratu gero, erreserban %13a modu honetan gauzatzen dira, Bizkaia eta EAE bitartean Urdaibain baino 3 aldiz gehiago. Beraz marrazten hasi behar garen transformazioak, errealitate honi arduraz erantzun behar dio. Hau, bi ikuspuntutik ulertu daiteke:

Lurralde mailari dagokionez, Urdaibain bizi diren biztanleen gehiengoak erreserbatik kanpo egiten du lan, eta Bizkaiko beste herri eta hiri garrantzitsuenekin dauden ibilgailu publikoan eguneroko konexioak onargarriak izan arren, beste gune askorekiko daudenak ez daude maila horretan. Gainera honi, ibilgailu pribatuak dakartzan erosotasunak eta denbora aurrezteak, herritarren egunerokoan geltokietan eta interkonexioetan galdutako denboraren aurrean faktore garrantzitsuagoak bilakatu dira.

Hori dela eta, ekologikoki eta norbanakoarentzako ekonomikoagoa den modelo jasangarriagoaren oinarriak, badirudi garraio publikoaren intentsitatea hobetzean, trenbide sarearen hobekuntzan eta eskala txikiro ibilgailuen erabilera elkarbanatua sustatzean daudela.

Bestetik, hirigune mailan, Gernikako barne mugikortasunari dagokionez, azken urteotan mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu nabarmenik ez da izan. Egia da peatonilizazio prozesu potentea izan dela eta baita "bidebusa" autobus publikoa ere martxan dela. Baina herriko errepide sistemara arretaz begiratu, azken hamarkadetan penaz aldatua izan da. Bide gorri sistema txiki bezain traketsa dago, zeinen lotura guneak, ibilbideak eta kotxeenganako priorizazio mailak ez dituzten exijitu beharrezko minimoak betetzen. Eta herri honek etorkizun jasangarri batera begiratu nahi badu, gaur egun ez du benetan oinarri sendorik. Honen aurrean aldiz, esperantzarako atearen bat zabaldu da azkenotan. Hots, HAPO berrian, aurkezpen publikoan erakutsitako informazioaren arabera behintzat, bizikleta sare berri bat planteatu da. Gernika aldetik alde, auzo eta puntu neuralgiko desberdinak lotuz, gurutzatuko duen bidegorria. Baina hemen ere hutsune nabarmenak soma daitezke, Zearreta kalea -Gernikako hezkuntza guneetako bat-, herriko bi geltoki garrantzitsuenak eta Astra, erreserbako gune sozial bereziena, ez baititu sendo lotzen.

Badator aldaketa, guztion aldetik aldaketak sortuta, egokituko gara klima aldaketaren behar izanetara.



Amagoia Lopez De Larruzea

ODOLKIDEAK, Gernikaldeko
Odol-emoileen alkarteburua

ODOLA EMOTEA: POZGARRIA, ERRAZA ETA DANON ONERAKO

Gure osasun-sistemaren barruan odola ezinbestekoa da gaixoen bizitza edo bizi-kalitatea hobetzeko, eta askotan gaixoak eurak salbetako: odol-osagaien transfusinoa eginda edo hemoderibatuen bidezkoa izan, odola gaixoak behar dabenerako ospitalean edo osasun sistemaren eskura egon behar da.

Odola emoten dogunean ez dakigu noiz izango dan hori, baina jakin badakigu inoren on beharrean egiten dogula: horrek lehenengo eta behin, poztasuna dakartso emoileari. Bihotza poztu egiten jaku eta geure alderik altruistena eta solidarioena erakusten dogu. Borondatezkoa da eta norberak erabagi behar dau noiz, non, zelan, zenbatero... emon odola. Behin emoten hasita, garrantzi handikoa izaten da fideltasuna, hau da, emoten segidu egin behar da, urtean 2-3 bider, bakotzak ahal dabena (Gernikan, esaterako, errepikapen -indizea 1,8koa da).

Odola emoteko oinarriko baldintzak ondo errazak dira: 18 urtetik gorakoa, 50 kilotik gorako pisuduna, eta osasunez ondo antzean egotea (azken hau medikuak berak erabagiten dau galdetegia eta alkarrizketaren bidez). Osasun sistemak baliabideak eskura ipinten deuskuz odola erraz emoteko: urrunera barik, Gernika, Mundaka eta Bermeo herrietan eta enpresa batzuetan (Maier, Losal, Rhointer-Dalia-Malta) be emon leiteke.

Gernikan odol-emotea 1974ko abenduaren 7an, zapatu arratsaldean, hasi zan Estazinoko plazako Mutuan. Gerora Artekalea- Foru plazan ezarri zan autobusa, eta urtero 1.000 emote inguru egiten dabez bertan Gernikaldeko odol-emoileak. Normalean hileroko lehenengo astelehen bietan (goiz-arratsaldean) etorten da autobusa, eta hiru hilerik behin, zapatu goiz batean be bai.

Edozelan be, ez da asko kostetan autobusera igon eta odola emotea. Gure bizitzan zehar baietz euki odolaren edo hemoderibatuen beharra: alde zuzenetik norberak emon ezker, beste animo batez onartuko dogu inoren odola, geurea beste batzuetan inori emon deusagun moduan. Pentsau barik be alkarren lagun egiten dogu. Danon onerako!

Ahal dogun bitartean, behintzat, odola emon behar dogu behar dabeneztat. Eta ahal dogun bitartean...eutsi emoteari!

www.donantes2punto0.eus / tel. 900 404 303.

URDAIBAI TOP DA URTE GUZTIAN



GAZTELUGATXEKO DONIENEREN SILUETA BEREZIA

Bermeoko eta Bakioko itsas herrien artean, Gaztelugatxe ko irlatxo agetu egiten da, Donieneko ermitak koroatuta. 1053. urtean dokumentatua, ia mila urteko historian zehar tenplua piraten zein hondoratzeen lekuko izan da, baita oraintsuagoko garaietako zeremonia erlijiosoena be.

OMAREN BENETAKOTASUNA

Oma bailaran ibiltzea plazerra da. Bidean arte eta naturaz betetako paraje ederra aurkituko dogu, baita Erdi Aroko errotak eta baserriak, baso eta paisaia bakarrak.



ARTZUBIREN EDERTASUNA HARRAPA EZAZU

Naturak bere distira eta balio ekologikoagatik nagusi da inguru honetan. Hemen Artzubiko zubia tinko mantentzen da DoneJakue Bideko erromesen pasabidea lez



ZERURA BEGIRATZEN DAUEN IKUSKIZUNA

Udazkenero Urdaibaiko zeruan marrazten dan koadro ederra da hau. Izan be, Urdaibai hegazti migratzaileen pasabidea da, hegoaldeko elikagai eta beroaren bila doazela



UDAZKENEAN BERPIZTEN DAN OLATUA

Mundakako surf-giroa udazkenean gailentzen da, ezker olatu mitiko honek bere baldintzarik onenak biltzen dauzenez.

KULTURA, PAISAIA ETA GASTRONOMIA BATUZ

Itsasora begira dauden mendi-mazeletan edo barnealdeko paisaietan, txakolinako mahastiak Urdaibaiko paisaia ederraren parte dira.



ELANTXOBEK ONDO MEREZI DAU HATSA GALTZEA

Bere kokapenak, Ogoñoko lurmuturraren babosean, itsas ondoan eta "aldaban" eraikita, bere kale aldapatsuekaz, ibilbide osasungarri hau sortzeari gonbidatzen dau.





PEIO GORROÑO

“XIX.mendea BURDINARENA izan zan, XX.mendea HORMIGOIRENA eta XXI. mendea EGURRARENA izango da”

Berriztarra jaiotzez, Peio Gorroño Egoineko sortzailekideaK, gogor lan egin dau, egurra lehengaitzat hartuta, enpresa handi bat eraikitzeko Urdaibain. Bere jarrera barrizalea, esfortzu gaitasuna eta bere sen ekintzaileari esker geure mugetatik harago enpresari ezaguna bilakatu da, bere erantzukizun enpresarialagatik. Urdaibai Magazinaren elkarrizketa honetan bere ibilbidea, Egoin, egurra eta Busturialdeagaz zein munduagaz daukon loturari buruz egiten dau hausnarketa.

Egoin-eko jatorriari buruz berba egin daiguzan...

lazko mendearen 70-90. hamarkaden arteko urteetan, zurajea desagertu zan geure lurraldean. Burdinak eta batez be hormigoiak egurra desagertarazi ebeen eta egurra bigarren mailako paperetarako erabiltzen zan kofratuak, atepak, oholzak, etabar.

Larogeigarren hamarkadaren amaieran topografia zerbitzuetako ingeniari eta landa ingeniari bat sortu gendun eta honen bitartez egurrezko estrukturazko lehenengo proiektuak bultzatu genduzan. Egurrezko estrukturazko proiektu hoiei irtenbidea emoteko larogeita hamargarren hamarkadaren hasieran Egoin enpresa sortu gendun, honen egoitza Astei Baserrian ezarriz, Natxitua-Ea (Bizkaia). Zerratoki txiki bat egin gendun estrukturazko egurrerako eta bertan laritz, Lawson zipresak, haritzak eta gaztainondoak moztan genduzan, espezie hauek egokienak zirelakoan garai hartan. Haritzak ta gaztainondoak geure egurrezko ondare historikoa

(baserriak, eleizak, baselizak) espezie hauekazi eraikita egoalako.

Halanda be, espezie hauek sikatzeko egoan arazo handia kontutan hartuta, hauek ordezkatzeko beste espezie batzuk aukeratu genduzan, laritz, zipres edota izei Douglas hoiaren artean. Azken hauek iraunkoragoak, gogorragoak eta erabiltzeko errazagoak ziran. Garai hartan espezie hauek moztan ebezan 5-6 zerratoki txiki egoazan Euskadin. Egurra hau egurrezko ondare historikoa zaharbarritzeko erabiltzen da gehien bat: eleizak, baserriak eta baselizak.

Hasieratik, oinarritzko zerratokia ginanetik, geure produkzio-bideen teknifikazioaren alde egin gendun, garai hartan egiturazko egurra moztu eta mekanizatzeke Ordenagailuz lagundutako marrazketako (OLM) zenbakizko kontrolerako makinak sartuz.

Produkzio-bideetan teknologia hau erabiltzeak ingeniariagaz batera hasieratik bereizgarria emon



euskun, Egoineko etengabeko garapenari lagunduz bere 3 hamarkadetako historian zehar.

Zeure enpresa seriotasuna eta lehiakortasunagatik da ezaguna.

Eraikuntza sektoreak bere egonkortasuna ahuldu egiten dabeen eragile askori dago lotuta. Berez, produkzio-sistemetan oso gutxi modernizatu dan sektorea dala uste dot. Produktuen hornitzaileak bai modernizatu dira baina obrak eskuzko izaera tradizional hori kontserbatu dau. Halanda be, espezializatutako hemengo beharginak guztiz desagertu dira, eta integratzeko eta komunikatzeko arazoak dauzkaten etorkinek ordezkatu dabez hauek. Igeltserotzan eta eskulanan oinarritutako eraikuntza sistema honetan, Egoineko eraikuntza sistemak aurrefabrikatutako sistemengatik bereiztu da. Honi esker obrak oso arin eta garbitasunez egiten doguz

Zergaitik Busturialdean?

Gu 1974.enean Astei baserrira heldu ginan, Natxitan kokatuta, Ean, Abadino eta Berrizitik etorrira. Geure ikasketak amaituta, bertan hasi gendun geure "baserritarren bidaia", 15 urte iraun ebana 1989.enerarte. Behi esnea ekoizten gendun ehun bat behiekaz. Poltsaratutako geure esnea Bizkaiko herri ezberdinetan saldu gendun hamarkada oso baten.

Baserriak apurka-apurka lagatzen joan ziran landa guneetako bizilagunen kontrako migrazioa egin gendun. Gehienek zihoazenean gu energia eta ilusio handiz heldu ginan. Landa bidai polita egin genduan eta geure momenturik onenean dimitidu gendun, Euskadiko pariak ginela konturatu ginelako, profesioaren kontrakoa zan inguru administratiboa egoalako. Geure aurretik besteek landa guneko lanak zergaitik utzi ebeen konturatu ginan. Apaltasun sendaketa hau ondo etorri euskun.

Astei baserrian garatu zan Egoin, Busturialdean bertan, geure jabegokoa zalako. Garai hartako arauen arabera lehen sektoreko jarduera transformatzailea hau ezarri ahal zalako hemen eta nola ez, burutzen dogun lanarako gune bikaina dalako. Oso harro gagoz inguruan daukogunagaz, zuzagti eta natura berdea.

“Baserriak apurka-apurka lagatzen joan ziran landa guneetako bizilagunen kontrako migrazioa egin gendun. Gehienek zihoazenean gu energia eta ilusio handiz heldu ginan.”

Zelan eboluzionatu dau enpresak? Zeintzuk izan dira eboluzio horretan ardatz izandako balioak?

Larogita hamargarren hamarkadaren hasieran 5 beharginekaz hasi ginan eta hoietako hiru anaiak ginan ta laugarren bat loba zan. Egoin DNA familiarragaz jaio zan eta horrela izaten jarraitu da orain arte.

Beharginen kopurua gehituz joan da apurka-apurka eta etengabe gaur egunerarte. Orain egundik gora dira.

Eboluzio honetara eraman gaituzten balioak batez be lana eta lantaldearen sakrifizioa eta adorea izan dira. Eta aldi berean, zuzendaritzak izan dauen hausnarketa estrategikoa, gertaera ekonomikoak eta sozialak kontutan hartuz.

Zeintzuk izan dira zuon lorpen teknologikoak?

Neure bezalako buru sukartsuek ideia eta produktu bakoitzaren alde on eta txarrak analizaten doguz sistematikoki. Horri esker barrikuntza lortzen da eta produktu barriak sortzen dira.

Egurrezko produktu barri asko merkaturatu doguz. Gaur egun lantzen dogun produktu nagusia CLT deritzoguzen egurrezko panelak dira. Kolatutako taulaz egindako



Lan-bilera Egoien

panel handiak dira eta luzeraz 17 metro izan ahal dabez, zabaleraz 3,60 metro eta lodieraz 60 eta 360 milimetro bitartekoak dira. Panel estruktural handi hauek batzutan 8 tona izan ahal dabe eta soilik egurrezko eraikinak egiteko erabiltzen dira: hormak, solairuak eta estalkiak.

Oraintxurarte Europa Mendebaldeko fabrikatzaile bakarrak izan gara (Frantzia, Ingalaterra, Espainia, Portugal).

Honen ekoizpenagaz 2008 eta 2009 urte bitartean hasi gendun, inbertsio garrantzitsuak eginez atzeraldi ekonomikoa izan zanean.

Oraintsu, CLT-A deritzogun produktu barri bat atara dogu. Neurri handiko panel hobikaria da eta barrutik material isolatzailez beteta dago. Bere arintasun erlatiboa eta bere erresistentzia mekanikoa guztiz egokiak dira eraikinen estalkietarako, batez be neurri handiko eraikinetan.

Orokorrean, era askotako 6000 proiektutik gora burutu doguz: baserriak, familia bakarreko etxeak, eskolak, etxebizitza blokeak, kiroldegiak, jatetxeak, eleizak, frontoiak, gizarte-etxeak, upategiak, pasabideak, zubiak, merkatalgune handiak, bulegoak, eta abar.

Obra berezi asko burutu doguz be eta hoietako asko oso zailak eta munduko leku ezberdinetan. Azkenen artean nabarmentzen da, adibidez, Egiptoko Erregeen Haranean Ramsés V eta Tutankamon hilobi faraonikoen zaharberritze lanak, baita Parisen egin genduan CLTko egurrezko 7 solairuko hotela, Manchesterren (Ingalaterra) eraikitako 6 altuerako 4 bloke 80 etxebizitzetakoak,

5 altuerako 68 etxebizitza Hondarribin, 5 altuerako 75 etxebizitza Bartzelonan, 5 altuerako 38 etxebizitza Gironan, eta abar.

Non dago Egoin nazioarte mailan?

Espainiako ekonomiarako hain kaltegarria izan zan krisi ekonomikoak Egoien internazionalizazioa ekarri eban. 2008.enetik frantziar merkatuagaz hasi ginan lan egiten, hamarkada batez geure jardueraren %25a merkatu honetan mantenduz. Apurka-apurka, Ingalaterrako merkatuan sartuz joan gara hezkuntza arloan proiektu garrantzitsuak burutuz, eskolak, eta batez be estrukturan egurrez egindako etxebizitza kolektiboen eraikuntzak. Afrikan Cabo Verde-en, Maurizio Uhartean, Maroko eta Egipton proiektu ezberdinak burutzen gabiz.

Azken urteetan, geure jardueraren %30a nazioartekoa da, nahiz eta merkatu nazionala berreskuratuz doan eta gaur egungo eskaerari erantzuteko zenbait zailtasun daukoguz.

Zein da egurraren lehiakortasun maila eraikuntzan?

Gaur egungo ekonomia produktu eta prozesuek egiten dogun lehiakortasun handia dago oinarrituta. Kostua da gehienetan erosteko erabakia hartzeko ezinbesteko faktorea baina ez da beti horrela. Lehiakorrik izan barik oso zaila izango litzateke gaur egungo merkatuan saltzea. Egurraz eraikitzeak geure metodologia erabilita eraikuntzarako dagozen beste metodo batzuk baino



EUSKAL SOUVENIR'S



Andra Mari kalea, z/g
Gernika - Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenir's.com



@euskalsouvenir's



ARRIBALTZA
KAFETEGIA

ARRIZA
KAFETEGIA

Barrenkalea, 6
946 466 084

Artekalea
944 650 698



48300 Gernika-Lumo

kostu handiagorik ez dau suposatzen. Arinago eta garbiago eraikitzen dogu, eraikin iraunkorragoak lortuz. Maila handiko eraginkortasun energetikoa, CO2ko emisio baxuak, karbono metatzea eta azkenik, hasieratik mugatutako eta zehaztutako kostuak. Egurra produktu naturala eta aldakorra lez beste materialen aurrean magia eta xarma daukola esan daitekegu. Bestalde, duintasunez zahartu egiten da, izaki bizidunak lez. Egurraz egindako mende askoko eraikinek aparteko edertasuna eskeintzen dabe irudi, ehundura eta antxinakotasunean.

Egoinen fakturazio mailak be gora egiten al dau?

Egoinen zuzendaritza talde barriaren adierazpenak aurreko urteko fakturazioa %20an handitzeari zuzenduta dagoz.

Sinisten ez dauen enpresak hil egiten dala dinoe. Nire ikuspegi pertsonala hazkuntza jasangarriagoan adierazten dot urtean %5a inguru igoz. Halanda be, Legution daukogun instalazioetan egin doguzen inbertsio handiak kontutan hartuta, honek geure fakturazioaren hazkuntza handiagora derrigortzen gaitu.

Ze motatako egurra erabiltzen duze Egoinen?

2008rarte Eskandinaviatik, Alemaniatik, Frantziatik, Siberiatik edota Kanadatik etorritako egurra erabiltzen genduan.

Krisi ekonomikoaren larritasunak eta iraunkortasun energetikoaren analisiak geure enpresaren filosofia goitik behera aldatzea eragin dabe. Hamarkada baten, tokiko egurraren erabilpena %0tik %95era izatera pasatu da geure enpresan. Geure inguruko egur koniferoen erabilpenaren aurrean aurrerexiak izan doguz. Halanda be, beharrianak aurrerexi hauek gaintzera eraman gaitu, egur hauetan inportazinoko egurren baino ezaugarri hobeagoak aurkituz zenbait arloetan.

Gaur egun, erabiltzen dogun egurraren %75a radiata pinukoa da, %15a laritza, %5a izeiak. Bere jatorria bertan dago, 100 kilometroko itzulingerukoan.

Egoinen indargunea bere ingeniartza da, 20 teknikoaz osatutakoa. Hauek produktuak eta proiektuak garatzen

dabez. Urtetik urtera sortzen doguzen produktu propioak daukoguz eta enpresaren bizia dira. Produktu barrien bitartez barrikuntza iraunkor mantentzea enpresaren helburu nagusia izan behar dau etorkizunari begira. Enpresaren DNAn dago eta eskarmentu gehiago daukon ordez etorki diren belaunaldi barriek kontserbatu behar dabe. Behar bada, jarraipena izateko alderik zailena izango da da hau.

Egoien erronka pertsonala al da?

Inolako duda barik. Nire inplikazio pertsonala erabatekoa izan da enpresa martxan jartzeko. Lanordu asko, opor gutxi, intentsitate eta ilusino asko. Enpresari emondako bizi oso bat, gaixo-portaerarte askotan. Behargin askok be emon deutse asko Egoinei.

“Hamarkada baten, tokiko egurraren erabilpena %0tik %95era izatera pasatu da geure enpresan. Geure inguruko egur koniferoen erabilpenaren aurrean aurrerexiak izan doguz. Halanda be, beharrianak aurrerexi hauek gaintzera eraman gaitu, egur hauetan inportazinoko egurren baino ezaugarri hobeagoak aurkituz zenbait arloetan.”

Azken urteotan jendea dator ideologia ezberdin batez. Eskarmentu handikook balio positibo lez ikusten dogu lana, baina gazteek aisialdirako denbora gehiago estimatzen dabe kirola egiteko, kulturarako, familia, lagunak... Lana euretariko askorentzat orbana da. Honek lantaldearen funtzionamenduan dauko eragina, askotan enpresak lanari lotutako pertsonak behar dauz.

Gitxitat hartutako materiala al da egurra?

Benetan be! Arrazoi ezberdinak direla eta asko baztertu da.

Guk horrela adierazten dogu: XIX.mendea burdinarena izan

zan, XX.mendea hormigoirena eta XXI.mendea egurrarena izango da.

10 m3/urtean basoan hazten dan baliabide barriztagarri batek mundu mailan hazkuntzarako ahalmen handia suposatzen dau. Izan be, Europako baso-masak bikoiztu egin da 70 urteetan. Gaur egun, kontsumitzen dan baino gehiago hazten da. Erroiluko egurraren 50 m3 dira beharrezkoak familia baterako etxe bat eraikitzeo. Datu hau kontutan hartuta, 5 urterik behin baso hektarea batek etxe bat eraikitzeo behar dan egur guztia emon ahal dau. Koniferen 200.000 hektarea ingurugaz, Euskal Autonomi Erkidegoa urtero 30-40.000 etxe eraikitzeo egurra hornitzeko kapaza izango zan, geure eraikitze beharrianen gainetik.

Euskadin badagoz “arrazismoa” adierazten dabeen



Arrolagune
Arrolako Opidium-aren
Interpretazio Zentroa



Bizkaia
Arrola Urdaibai

VEN Y DESCUBRE
COMO SE VIVIA EN URDAIBAI
hace 2300 años

ZATOZ ETA EZAGUTU
ZELAN BIZI ZIREN URDAIBAIN
orain 2300 urte

Arrolagune:
Loiola Auzoa 4 - 48383 Arratzu (Bizkaia)



Bisitak: **Zapatu edo Domekatan**
Visitas: Sábados o Domingos



Orduategia - Horario: **10:00h. - 14:00h.**

Tlf: 634 24 37 62

Email: arrolagune@visiturdaibai.com

www.visiturdaibai.com

pertsonak azken mende honetan masiboki landatu diran pinu edota eukaliptoak bezalako arbolak aurrean. Kasu batzuetan bertako arbolak albo batera eraman dabez baina lehenik eta behin irasailak eta otadiak ziran mendi espazioak hartu dabez, eta geroagoko fasean belardiak eta baserrietako baratzeak hartu dabez. Aurrezki-ekonomia sortu dabe landa inguruko familietan. Mendiak pertsona askoren itsulapikoa izan dira. 60-70-80 urteetan ez pisu gitxi erosi dira adibidez Gernikan pinuetako diruaz. Bestalde, milaka langilek baso-ekoizpen hauei lotutako lanpostuak daukeez.

Egurragaz zuzenki egindako eraikuntza batek hainbat mende iraun daikete beste eraikuntza sistemekaz nekez lortu ahal dan pertsonentzako konfort mailagaz.

Egurra material barrizailan bilakatu da?

Historian zehar egurra gizakientzako baliogarria izan dan material tradizionala da, sua egiteko, tresnak egiteko, etxebizitzak, erabilera publikoko eraikinak, eta abar. Berez, egurra oinarritzako materiala da eta inguruan daukogun naturan ugaria da.

Egurran barrizaillea dana material honetatik sortutako produktuak dira eta bere erabilpen ezberdinak. Egoinen, geure kasuan, guztiz barrizaillea da, adibidez, 5, 6, 7, 8 altueretako etxebizitza kolektiboak egitea 20 metroko altuera gaindituz. Eraikuntza hauen barne eskilara zein igongailuen hutsuneak be egiten doguz, geure CLTko panel handiekaz, hormak, solairuak edota estalkiak egurrakz eginez, kanpotik material isolatzailez estalita egoten dira normalean eta barrutik egurra ahal da agerian utzi edo ez.

Azken 80 urteetan era honetako eraikinak hormigoiez eta adreiluz eraiki dira. Garai modernoan egurragaz eraikitzea pentsaezina zan. Halanda be, Afrikako zein Europako herrialde ezberdinetan sistematikoki burutzen gabiz. Kasu honetan egurra material modernoa eta barrizaillea dala baieztza daikete kategorikoki.

Zein da egurraren etorkizuna? Eta Egoinen etorkizuna?

Zalantza barik, egurraren erabilerak etorkizun oso ona dauko. Material naturala da, eta bere hazkundeagatik barritzen da, bai eta partikularrek zein kolektibitateek mundu osoan sustatzen dabeen baso-garapenagatik be.

Erabilera anitz eta askotarikoak daukozen arren, bi sektore nagusitan banatzen auzartzen naz: lehena, egur birrindua, Euskadiko egurraren %70a, biomasa, paper-orea eta taula aglomeratuak (egurrezko hanburgesa be esaten jake) sortzen dabeena, eta bigarrena, egur zerratua, Euskadiko egurraren %30a, altzariak, eraikuntzako enkofratua, enbalajea eta paleta ekoizten dabeena, eraikuntza iraunkorrerako be erabiltzen da, egurrezko txuleta deitzen doguna. Lehen bi erabilerak, altzariarenak eta

eraikuntzarenak, atzeraldi betean dagoz, eta hurrengo biak, enbalaje eta eraikuntza iraunkorrarenak, goraldian dagoz. Modu horretan orekatzen dabe egur zerratuaren sektorea.

Egur birrindua goraldian dago, eta apurka-apurka egur birrinduaren ehunekoa urtez urte igotzen doa, eta hanburgesa (egur aglomeratua) txuleta (egur zerratua) nagusitzen doa.

Egoin egur zerratuaren sektorean dago. Intsinis pinuaren, alertzearen eta izeiaren lehen kalitateko enborrak erosten doguz, habeak eta taulak zerratu, lehortu eta ijzete fasetik igaroz, eta gure produktuak eraikin iraunkorretan muntatzeko eta ingeniartzako proiektuekz amaituz. Sektore hau dinamika onagaz garatzen da, 10 urte iraun dauen krisialdi gogor baten ondoren. Egoin enpresak, ondo kudeatuta, oso etorkizun ona daukola pentsatzen dot.

Egoin eta Busturialdearen arteko loturaz berba egin daigun.

Kantauri itsasora begira, belardiz eta zuhaitzez inguratuta, sakabanatuta dagozan dozena bat baserrian bizilagun onak daukozan landa-mundu idiliko batean murgilduta,

Egoin eta bere jarduera oso leku onean dagoz, nahiz eta isolatuta egon eta sarbide zail samarrak izan.

Ehundik gora langilekaz, horietako asko eskualdetik datozenak, tokiko egurra erabiliz, Busturialdeko zati handi bat eta aldi berean eskualderako eraikinak eginez. Egoin lurraldean ondo egokitzen dan enpresa dela pentsatzen dogu.

Egoin enpresa jasangarria da, hurbileko baliabide naturalak

erabiltzen dauz, gutxi kutsatzen dau, egiten dabezen eraikinetan karbono kopuru izugarriak gordetzen dauz, energia-kontsumo oso txikia izateaz gain energia gutxi gastatzen dau eraikuntza prozesuetan. Lurrerako planeta berde baterako ondo lerrotatuta gagozela uste dot.

Busturialdea basogintzako eskualdea al da?

Lurraldeko beste leku batzuetan bezala Busturialdean baso onak dagoz, eta beste batzuk erregularrak. Alde batetik, lurraren aberastasuna dago, eta, bestetik, bere kokapena haran, mendi-mazela edo gailur honoan.

Haranaren hondoko lurrek, sakonagoak diran eta haizearen eraginpean ez dagozen lurzoruekaz, zuhaitz lirainagoak eta zilindrikoagoak eskaintzen dabez, ondoren egitura-erabilerarako oholak lortzeko. Egoinen jarduerak kalitate handiko egurra eskatzen dau, inguruan dogun baso-masaren laurden bat bakarrik da egokia geure erabilerarako. Oraindino geure erabilerarako egokiak diran zuhaitz ugari dagoz eskualde honetan.

Halere, azken bi urte hauetan, gehien erabiltzen doguzen espezieen landaketak (pinua eta alertzea) oso urriak dira

“Guztiz barrizaillea da, adibidez, 5, 6, 7, 8 altueretako etxebizitza kolektiboak egitea 20 metroko altuera gaindituz. Eraikuntza hauen barne eskilara zein igongailuen hutsuneak be egiten doguz, geure CLTko panel handiekaz”



“Zuhaitz autoktonoen landaketak bakarrik prekonizatzen dabezen ingurumen-filosofia barrien panorama gehitzen badogu, Euskadiko urre berdeak egun kontatuak izan leikez”

Etxebizitza kolektiboak
Begles, Frantzia
Argazkia Egoin, 2014

pairatzen dabezen gaixotasunen ondorioz, eukalipto landaketak gehiegi ugarituz. Epe ertainean, geure jarduerarako egurra hornitzeko arazo larria izan daikegu.

Nola eusten zaio basoaren eta industriaren arteko orekari?

Bi aldeak behar dira etorkizuneko oreka lortzeko, eta alde bakoitzaren gaitasunak eta helburuak bat etorri behar dira. Basoak bizi-ziklo bat dauko, eta ekoizteko gaitasun jakin bat. Egur horren kontsumo industrialak bere ekoizpen-ahalmenagaz orekan egon behar dau. Duela 5 edo 6 urte, krisi ekonomiko betean murgilduta, basoak kontsumitzen zana baino askoz gehiago ekoizten zan, eta une jakin batean baso-masa zahartu egin da eta egurraren kalitatea jaitsi egin da intsinis pinuaren kasuan. Dakigunez, adin jakin bat (40-50 urte) gaintitzen daben zuhaitzek zein lekutan hazten diren arabera egurra igartu egiten da, eta horrek kalitate arazo larriak sortzen dauz egurrean. Gaur egun, intsinis pinuaren gaixotasunagaz batera ziklo ekonomiko positibo bat izateak material horri buruz genduzan erreserba handiak murrizten dauz, kontsumo-produkzio oreka arriskuan jarritz.

Zuhaitz autoktonoen landaketak bakarrik prekonizatzen dabezen ingurumen-filosofia barrien panorama gehitzen badogu, Euskadiko urre berdeak egun kontatuak izan leikez, konpromiso ekonomiko, sozial eta batez be ekologikoagatik tokiko egurrak erabiltzeko urratsa eman genduan gu bezalako enpresak arriskuan jarritz.

Nola eragiten dau intsinis pinuaren gaixotasunak?

Ehun urteko ezarpenaren ondoren, intsinis pinua gaixotasun ziklo oso larria jasaten ari da, batez be landaketa gazteak gutxitzen ari dena.

Gure etorkizunari larriki eragiten deutso, konpromiso ekologikoaren bidez tokiko egurra erabiltzearen aldeko apustua egin gendualako. Gure erabilerarako baliagarriak izan daitekezen espezieak ez landatzea erabakitzen bada, adibidez eukalipto, Bizkaiko lurralde osoan masiboki landatzen dana, Egoinen biziraupenak bira estrategiko garrantzitsua beharko dau gure jarduerari jarraipena emoteko.

Egia da monolaborantzakoek izurrite espezializatuak sortzen dabezela zuhaitzi ugari eta arrunt horretan, gure pinuaren kasuan bezala. Hainbat espezie ezberdin sartzeak gure basoen berrorekan lagun leike. Halere, baso-azalera hoiei etekina atera gura bajake, landaketek bat etorri behar dabe ingurunean ezarritako industria-erabilerekaz.

Zuhaitz-espezieen arteko oreka egokia litzakeela uste dogu, hainbat zuhaitz-mota landatuz: lurrari etekina atera, paisaia sortu, ekosistema kontserbatu, egurraren industriak hornitu eta CO2 harrapatu eta animaliei eta pertsonei itzala emon.



Zaindu eta gozatu

urratu

Lekuko



Jon Biain



Doroteo Arrazola



Jose Luis Izagirre

FORUKO LARRU-LANTEGIA,

Ofizioa galdu gendun, kontserba daigun bere kultura

Foruko Larru- lantegiaren azken sasoiak

Argazkiak: Arrazola familiak eskeinitakoak dira



Doroteo Arrazola bezero batzukaz

Larruazala zurratzeko ofizio zaharra, XIX. mendean, mundu mailako industria garrantzitsua izatera pasa zan. Iragan industrial haren lekuko Foruko antxinako *Tenería Vascongada* izan da, Bizkaian itxi zan azken zurrategia, gaur monumentu izendatua, Euskal Kultura Ondarearen Inbentarioan.

Ugaztun handien azala historiaurretik erabili izan da hotzetik babesteko, lehenik tratatu barik, eta aurrerago tratatuta, usteltzea eta gaixotasunen transmisioa saihesteko. Egiptoarren garaian, zurratzeko teknikak egoazan, eta ofizio bat bezala ezagutzen zan. Erdi Aroan zurraketa-gremioak lehengaiak eta ura erraz eskuratzeko moduko lekuetan antolatzen ziran. XIX. mendean, ikerketa kimikoaren aurrerapenek industria-sektore indartsu bihurtu eben artisau-jarduera ha. Gure inguruan, *Tenería Vascongada* enpresaren azpiegitura osoa kontserbatzen da, Foruko larru-lantegia.

Foruko zurrategiaren jatorria XX. mendearen hasieran dago, *Curtidos Berasaluce* izeneko enpresak bere jarduera hasi ebanean. Fabrika muntatzeko, Foruko Patxu Errota zaharraren azpiegitura hidraulikoa eta instalazioak baliatu ebezan. Zurrategia 1917an eraiki zan eta Berasaluce familiak sortu eta zuzendu eban 1942. urtera arte. Ondoren, Arrazolarrek, Oñatiko zurrategien familiak, enpresa erosi eta *Tenería Vascongada* izena hartu eban. Industrializazio prozesu betean, modernizatu egin zan, ekoizpena hobetzeko eta garaietara egokitzeko. Makineria hori bera, gaur egun, ia osorik kontserbatzen da.

Iñaki Arrazolak, enpresako azken jabearen semeak, familia-negozio horren jatorriak gogoratzen dauz: *"Nire aitaren familia zurratzailea izan da, bai Arrazolarren aldetik, nire birraitona Oñatin zurratzailea baitzen, bai nire amona Markiegiren aldetik Deban. 1941ean Arrazolarrek Foruko zurrategia erosi ebeen eta nire aitona lehengusu bat, Patxi Arrazola, arduratu zan hartaz. 1958an, nire aitona Ricardo Gernikara etorri zan, Arantza alabagaz eta Doroteo seme nagusiagaz, larrutegia gobernatzera. Nire aitona hil zanean, nire aitak negozioagaz jarraitu eban, 2013an behin betiko itxi eben arte".*

Makinak kontserbazio-maila handia zuenez eta industria-ondare gisa balioa zuenez, Euskal Kultura

Ondarearen Inbentarioan sartu zan 2007an, kultura-ondasun gisa, monumentu kategorian. Kalifikazio horren barruan sartzen dira eraikina, funtzionatzeko behar dan azpiegitura hidraulikoa, fabrikaren ekoizpen-prozesuari lotutako ondasun higigarriak eta fabrikaren ingurunea. XX. mendearen hasieran eraikitako eraikinak barnean daukoz bere motor osagarriak, azpiegitura hidraulikoa eta uhal eta lokatz-sistemak, hala nola kurtzio-bonboak, xukatzeo makina edo distira emateko, tenkatzeo eta zuritzeo makinak.

Foruko zurrategiak behi-larrua lantzen eban funtsean. Hasieran larruak ia herri guztietan egoazan hiltegi ezberdinetan biltzen ziran. Beranduago, larruak, gatzetan kontserbatuak, handizkako biltegietan erosten ziran, eta, normalean, trenbidez etortzen ziran.

"Tenería Vascongada" enpresak garai hartarako merkatu sare esanguratsua sortzen eban eta Estatu osoan bezeroak eukazan. Egiten zan zurraketa mota landare-zurraketa zan, horretarako taninoak, animalia-koipeak... erabiltzen ziran. Larruazal onduaren erabilpena askotarikoa zan: muntatzeko eta larrugintzako aulkiak, oinetakoak, maletak, poltsak, gerrikoak ... Inguruko baseritarrei emoten eutsen lana, *"Biaín aita eta semeak izan ezik, Oñatitik be iritsi baitziren. Aitonaz eta aitaz gain, 7 langilek be lan egin eben zurrategian. Madrilgo, Sevillako, Antequerako, edota Bartzelonako larru onduen biltegiak bertako bezeroak ziran, eta oinetakoen artisauak be Gaztela eta Andaluziako hainbat lekutan. Hala ere, garrantzitsuenak, ziurrenik, zaldi-lasterketetarako zaldiak eta sokak egiten ebezan industriak izango ziran. Euskadin be baziran Foruan ondutako larruagaz lan egiten eben artisauak"*, nabarmendu dau Iñaki Arrazolak. Berak zurrategiko oroitzapen politak gordetzen dauz: *"Gogoan dot umea nintzala aitagaz joaten nintzala domekatan larruak zintzilikatzeo edo kentzeo lanen bat egitera, eta nire familiako belaunaldiek bizi izan daben ofizioa zalako".*



Orain eta beti



Xehetasunez xehetasun

Foruko zurrategia eraikin trinkoa da, jatorrizko eraikinak eta ondorengo handitze-lanek osatua. Beheko solairua, lehenengoa, bigarrena eta teilatupeko solairu bat dauzka. Makineria osoaren funtzionamendurako funtsezkoa zan errota zaharreko kanaletik (mendebaldeko fatxada) iristen zan ura.

Eraikineko solairu bakoitzak funtzio bat betetzen eban. Beheko solairuan "erriberako lana" egiten zan, hau da, garbitzea, haragi eta ile bereizketa, aurrezurraketa eta ontzea. Gaur egun be existitzen da, eta duela hamar urtera arte oraindik martxan egoan azpiegitura hidrauliko guztia eta makineria, hala nola, erriberako bonboa, itsasoko gatzagaz eta azidoagaz azala tratatzen zan bertan, upelak edo ontze-bonboak, Simon Basterretxea erriberako arotz gernikarrak fabrikatutakoak. Antxinako poleak, koipeztatzeko bonboak eta lehortegi artifizialerako galdara be mantentzen dira, besteak beste. Makina gehienak Badalonako EMSA etxetik etorten ziran.

Lehen solairua larrua akabatzeko erabiltzen zan, errematatu, luzatu, koipeztatu, distiratu eta tindatu egiten zan. Bigarren solairua lehortzeko zan, bi eremu desberdinekaz, bata lehortze naturalerako eta bestea lehortze artifizialerako; azken gune horretan lurrungaldara bat egoan, urteen poderioz fuel-oliozkoa izan zena, aire beroa sortzeko. Forjatuen zurezko taulen artean, ohol-tranpatxoak egoazan, eta, hoiien bidez, solairuak komunikatzen ziran onduak igarotzeko.

Foruko zurrategia, sektorean finkatutako enpresa izan arren, itxi egin eben azken Arrazola zurratzaileak erretiroa hartu ebanean. Familiaren sagak ez eban negozioagaz jarraitu. *"Dena den, jarduera horrek Urdaibain jarraitzea oso zaila izango zan, ezinezkoa ez bazan, 1918ko industria bat gaur egungo ingurumen- eta segurtasun-baldintzetara egokitzeko konplexutasun handiagatik"*, nabarmendu dau familiak.

Euskal Kultura Ondarearen inbentarioaren barruan monumentu gisa sartu ondoren, eta ondare hau zaindu eta etorkizunera osorik eraman ahal izateko, birgaitzeko eta kontserbatzeko esku-hartzeak soilik onartuko dira, osotasun estetiko, fisiko eta historikoarekiko errespetutik abiatuta, haren erabilera eta gozamina ahalbidetzeko eta ondasuna behar bezala mantentzen laguntzeko; halaber, ondasunaren narriadura atzeratzen lagunduko daben esku-hartzeak onartuko dira, bai eta ehorzketaren ekoizpen-prozesua eta haren harremana ulertzen, ezagutzen eta azaltzen lagunduko dabenak be. Funtzionalki Alde horretatik, honako hauek kontserbatuko dira: uraren sarrera eta antapara, solairuen arteko komunikazio-tranpak, lehortegi artifiziala (toberak eta guzti) eta bigarren solairuko fatxadetako arotzeriak, larruen eta makinaren lehortze naturalari lotuak.

Kultur ondasun horren balioa nabarmentzea egiteko dagoen irakasgaia da, eta hausnarketa eta konponbideak bilatzeko lan sakona eskaizen dau. *"Orain tristuraz ikusten dodaz Euskadin geratzen dan zurraketa-fabrika tradizional bakarraren instalazioak, makineria ..., nire aita erretiratu zanean erabat funtzionamenduan egoana, une batez hondatzen ari dala, eta nahiz eta babes-maila bat izan arren, Eusko Jaurlaritzak ondare industrial gisa katalogatuta dagoelako, kontserbatzea ahalbidetzen dauen jarduera bat sortzeko gai ez bagara, galdu egingo da ezinbestean"*, dio Iñaki Arrazolak.

Oraintsu, 2017an, Aitor Arana argazkilaria gernikarraren erakusketa batek eraikin horren balioa aldarrikatu eban. Lehen mailako ondare-harribitxi bat, duen balio historiko-kulturalaz ohartu barik, Forurantz pasatzean ikusten doguna.

Ezagutu Gauegiz Arteaga pausoz pauso



Gauegiz
ARTEAGA

TURISMO

MARIJESIAK 4.00

proiektu multimedia antxinako tradizinoa ondo gordetako.

Marijesiak da Gernika-Lumon eta inguruko herri askotan ondo ezagutzen dogun tradizinoa: Gabonaurreko bederatzizurren osoa (abenduaren 16tik 24ra bitartean) Gernikan, Gauteziz Arteagan eta Ean antxina-antxinatik gordetan da, eta beste herri batzuetan (Mendata, Ibarrangelu, Lekeitio, Iurreta, Muxika, Busturia,...) azken egunean egiten dan erronda modukoa baino ez. Normalean, koplak kanteterakoan, hiru doinu erabilten dira egunen arabera, eta kalerik kale (edo baserririk baserri) egiten da, azken egunekoan dirua batzeko dala. Koplak gaia eta zentzua jatorriz erlijiosoa bada be, gaur egun zentzu hori nabarmen galduta dago. Izena koplak osagarria dan lehenengo egunetako lelotik dator: Maria Jose > marijesi, marijes, ... Gernikan tradizino hori ondo indartsu gorde da gaur arte. Koplak honen lehen aztarnak 1699an Mexikon Lezamiz abade durangarraren liburuan "Coplas a la Encarnación y Nacimiento de N.S.Jesucristo" dalakoan agertu arren, XIX. mendean amaieran eta batez be XX.mendean barruan badauka ibilera oparoa bezain zabala: S.Altubek korurako egin ebazan harmonizazio biak (1905/ 1922); Pedro Bidaguren Garratza lumotarrak 1919an inprentan emondako lehen liburutxua; etxe askotan gorde eta ondo estimatutako eskuizkribuak; Euzkadi egunkariak 1915etik



Vicent West, 2018

aurrera tradizino honen lekukotasun zehatza; RM Azkue, M. Lekuonaren, J.Bareñoren bildumak; JA Arana Martijaren ikerketak... Urte askotan boskote kantari hori izandakotik gaur arteko talde zabalera gernikar askok hartu izan dau parte eta azken batean, tradizinoak bizi-bizirik iraun ahal izan dau, 1970etik aurrera jasotako azken aldaketei esker. Eta, gizonezkoen ohitura zan horretan andrazkoak partaide izaten hasi ziranetik, gaur egun guztiz integratuta dagozana argi dago: horretan gernikarrok bilakaera modelikoa bizi izan dogu.

Marijesien taldeak berak bultzatuta, Marijesiak 4:00 proiektu multimedia beste mugarri bat da ibilera luze horretan. Garratzaren liburutxutik ehun urtera, beste dimentsino bat emoten jako tradizinoari, gaurko teknologia barria aprobetxatuta: dokumentala (50'), audioa kalerik kale grabatu dana metadatuakaz mapa antzean horniduta; koplak liburutxua 1919an egindakoaren antzekoa; zabalkunde



liburua argazki esanguratsuek; eta web orria. Liburu mardulagoa be bidean da, hurrengo baterako, azken ikerketak eta dokumentuak erakusteko moduan.

Proiektuaren aurkezpena abenduaren 13an izango da. Ea ondo estimetan dozun!

Amagoia Lopez de Larruzea Zarate
Marijesiak 4:00 proiektuaren Aholkulari
Orokorra





ISPIZUA TAR SEGUNDO LUMA NEKETSUA ETA IRAKURKETAREN BULTZATZAILEA

Bere izenak Bermeoko kale nagusietako bat identifikatzen dau, Ispizua Tar Segundo, herri arrantzaleak, laster bere herria utzi eta Perura emigratu eban bermeotar ospetsu, kazetari eta historialari honi eginiko omenaldia. Bermeoko kale-izendegian ez ezik, Hondarribian, Donostian, Hernanin edo Madrilen be ageri da Segundo de Ispizua Bajaneta izena.

Bermeon jaio zan 1869an baina euskaldun askok egin eben lez, laster bere familiak Ozeano Atlantikoa zeharkatu eban, Perun zorte hobea bilatzeko asmoz. Bere hasierako bokazioa apaiza izatea izan zan, baina ez eban apaiz-karrera amaitu eta kazetaritza izan zan bere bizitza markatu eban lanbidea. Ekuadorrera joan zan, eta han hasi zan kazetari gisa, eta han izan ebazan bere lehen polemikak be, hain larria izan zan, ezen 1987an Ekuadorretik kanporatu ebeen, Kubak independentziarako eskubidea eban ala ez bozkatu behar zan Ekuadorko Diputatuen Ganberaren bilera telegrama bidez boikoteatzen saiatzeagatik akusatua.

Costa Rica izan zan bere hurrengo helmuga, eta 1903an "el Noticiero" izeneko goizeko lehen egunkaria sortu eban hiriburuan, San Josen. Herrialdeko tiradarik handiena izatera iritsi zan egunkari independente ha. Garai hartan, Ispizua tar Segundok nolabaiteko kazetari sentsazionalista

ospea lortu eban. Osasun arazoak zirala medio, Ameriketako kontinentea utzi eta Bilbora itzultzea erabaki eban, eta han jarraitu eban kazetaritza lanakaz. Tokiko hainbat egunkaritan parte hartu eban, eta Euzko Alderdi Nazionalista Errepublikanoko kide nabarmena izan zan. Alderdi hori Francisco Ulaciak sortu eban 1909an, alderdi laikoa eta errepublikarra zan, eta ideologikoki EAJren ezkeriaz jotzen zan, eta Eusko Abertzale Ekintzaren (EAE-ANV) aurrekarizat.

Bere karrera profesionalean, aipagarria da *Real Sociedad Geográfico* elkartearen bazkide oso izan zala, 1876an sortua, nazioen arteko harremanak, hedapen koloniala, aurkikuntzak eta Geografia lehentasunezko helburu eta garrantzi politikoko helburutzat hartzen ebazana; Kultura Hispanoamerikarraren Batzarreko kide izan zan, "*Madrilgo Kultura Hispanoamerikarraren Zentroak*" hilero argitaratzen



Ispizua tar Segundo kalea Bermeoko kale nagusi bat da, erdigunean, 1. zenbakian Frantziskotarren komentua dago

eban argitalpena, José Canalejas politikari liberalak babestua Amerikagaz lotura kultural eta intelektualak estutzeko asmoz. Era berean, hainbat artikulu idatzi ebazan "Euskalerrriaren Alde", "Euzkadi", "Unión Iberoamericana", "El Mercantil de Manila" eta ABC egunkarietan, besteak beste.

Oso garrantzitsua izan zan bere historialari alderdia, obra nabarmenak idatziz, besteak beste: "La guerra actual y las doctrinas del vasco Francisco de Vitoria", (Bilbo, 1915); "La primera vuelta al mundo. IV. centenario: 1522-1922. Historia de La geografía y de la cosmografía en las Edades Antigua y Media con relación a los grandes descubrimientos marítimos realizados en los siglos XV y XVI por españoles y portugueses". (Madril, 1922, 2 liburuki); "Historia de la Geografía y de la Cosmografía. (Madril, 1922-1926, 2 liburuki). Bere lan nagusia "Historia de los vascos en el

“ Osasun arazoak zirala medio, Ameriketako kontinentea utzi eta Bilbora itzultzea erabaki eban, eta han jarraitu eban kazetaritza lanakaz. Tokiko hainbat egunkaritan parte hartu eban, eta Euzko Alderdi Nazionalista Errepublikanoko kide nabarmena izan zan. ”



Barrenkale, 13
48300 GERNIKA

Tlno. 688 649 894
endika.kafetegia@gmail.com



GARRAIOA,
BILTEGIRATZE,
BANAKETA...

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika – Lumo
(Bizkaia)


Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



descubrimiento, conquista y civilización de América”, Bilbo, (1914-1919, 6 liburuki) Euskal Ikasketen Zirkuluak sustatuko lehiaketa baterako idatzitako lana izan zan hau, saria 5000 pezetakoa zan. Karmelo Echegarayk, Bizkaiko Aldundiaren enkarguz, obra horri buruzko txosten bat egin eban, eta honako hau idatzi eban: *“Ispizua jaunak 1914an inprimatu eban Historia hau ahalegin galanta da, eta, bere sortzeko kemenagatik, eta bere estiloagatik, askotan ez oso garbia akatsak direla ta, baina lasaia, irmoa eta animatua, eta adierazpen guztiak dokumentu bidez egiaztatzearen aldeko orientazio kritikoagatik, nahiz eta batzuetan susmoen edota gutxi gorabehera onargarriak diren usteengatik eramaten utzi, errebelazio bat da eta are zaporetsuagoak eta helduagoak izango diran fruitu promesa bat. Eta ez zela arbitrarioa itxarotea, hurrengo liburukien bidez frogatzen da, lehenak baino askoz be handiagoak direnak, ikerketen zabaltasunagatik, iturri oparagoen ezagutzagatik eta goratze kritikoagatik...”*

Ispizua tar Segundo hil eta egun gutxira, Ramon Basterra idazle, poeta eta diplomazialari bilbotarrak honako hitzak eskaini eutsozan: *“Euskal jakintsua mingostasunez gainezka egoan, penaz beteta eta kezka eta malenkoniak atsekabetuta. Ispizua ez eban bere ikasketak egiteko baliabiderik. Nire begien aurrean haserre agertzen zan, besoak astinduz, ahotsa goratuz, bere eskuetan idazlearen luma bezalako lantresna bat izatearen zorigaitzoko zoriaren kontra oihukatuz, zeina, gainerako lanabes guztiek ez bezala, ez baitzuen balio beragaz egunean hamalau eta hamar eta sei ordu lan egiten ebanaren elikagairako”*. (*“El Noticiero Bilbaino”* 1924ko ekainaren 22a).

“ Bere lan nagusia *“Historia de los vascos en el descubrimiento, conquista y civilización de América”*, Bilbo, (1914-1919, 6 liburuki) Euskal Ikasketen Zirkuluak sustatuko lehiaketa baterako idatzitako lana izan zan hau, saria 5000 pezetakoa zan ”



“Historia de los vascos (II.Liburukia)”aren sarreran Segundo de Ispizua idatzitakoa:

Ausardia ia zorakeria bat da geure artean liburu bat argitaratzea. Ez da irakurtzen, eta hau da Espainiako gaitz handiena, bere gaitz guztien erroa edo jatorria ... Irakurtzen ez dauen herria gaur egun kotizatu ezin dan balio baten kolektibitatea da. Eta nik liburu bat argitaratu dot, eta honegaz bi izango dira, eta hirugarren bat argitaratzeko asmoa dot. Eta nire liburua irakurria izan zedin, herriz herri joatea erabaki neban, irakurtzeko ohitura pizteko, ez gauza friboloena, irakasteko eta estimulatzeko balio daikeena baizikBilbon irakurtzen dala aitortu behar dot be, eta asko gainera



BERRIKUNTZA
ETORKIZUNA
AURRERAPENA

Bizkaia
azpiegiturak



NOLA PARTE HARTU

Bere proiektu enpresariala "Arratzu Elkartegi Langunea"n ezartzeko interesatuek hemen kontaktatu:

azpiegiturak@bizkaia.eus / Tel. 946 073 700

ARRATZU ELKARTEGIA LANGUNEA



txikitasunetik handi

Landa eta itsasertz garapena
Desarrollo rural y litoral



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



KALABAZA, UDAZKENEKO ERREGINA



Lehen hotzak iristean gure ortuek euren distiraren zati handi bat galtzen dabe, baina udazkenak be *"berez distira egiten daben"* produktu baliotsuak uzten deuskuz, kalabaza, kasuan kasu. Mundu osoan 850 espezie inguru dagoz, eta Euskadin be barietate propioa dogu, Euskal Kalabaza tipoa edo Mallorcakoa, handia zentzu guztietan.

Bere kontsumoak antxinaroan dauko jatorria. Antxinako idazkien arabera, hebrearrek eta egiptoarrek jada kalabaza landatzen eben. Asiatik Ameriketara hedatu zan. Hasieran Guatemala edo Mexiko bezalako guneeetako indigenek, duela hamar mila urte inguru, kalabaza basatiak jaten ebezan, mami gutxikoak eta zaporean garratzak. Apurka apurka nekazari amerikarrak haziak aukeratzen joan ziran, elikagai aberats, zaporetzu, gozo eta balio nutritibo handiko bat lortu arte. XV. mendean konkistatzaile espainiarrek Europan sartu eben.

Kalabaza *Curcubita máxima* barazki familiatik dator; pepinoak, kalabazinak edo meloiak dira haren lehengusu-anaiak. Udako kalabazak badagoz be, azal finekoak, hazi bigunak eta kontserbazio txikiagokoak, eta neguko kalabazak, azal lodiagokoak, ur gutxiagokoak eta kontserbazio handiagokoak, egia esan, kalabaza da udazkeneko barazkirik ohikoena. Bereziki hemen irailetik azarora batzen dira.

Kalabaza barietate ugari dagoz, madari formakoak, konfitera edo aingeru-ilea, edo amerikarra, berde espainiarra, biolin edo kakahuetearena, lepo bihurritua

... baina hemen izarra gure barietate autoktonoa da, Euskal Kalabaza, *Mallorca* izenez be ezaguna, eta, batzuetan, Gernikako kalabaza jangarria esaten jake. Euskal kalabaza da Euskadiko ortuetan ohikoena. Erraza da gure edozein merkatutan ikustea. Berde iluna kanpotik, zilindro-formakoa, luzea, mutur bat bestea baino handiagoa duena. Bere mamia oso sendoa da eta laranja kolorekoa. Ortuari landare bizia eta ekoizpen handikoa da, martxotik garagarriera ereiten da eta garagarrietik zemendira batzen da. Normalean kalabaza oso handiak izaten dira, 50 kilo baino gehiago pisatu daikie.

Goza eta osasuntsua

Kalabaza elikagai-ekarpen handiko elikagaia da, eta ur-eduki handia dauko; izan be, kalabazaren %90a ura da. Zuntz iturri handia da, hesteen joan-etorria hobetzen dauena. E bitamina, antioxidatzailea emoten dau, eta kolageno, globulu gorri, hezur eta hortzen eraketan laguntzen dau. Burdina xurgatzen laguntzen dau, eta infekzioei aurre egiten laguntzen dau. Zuntz asko duenez, heste funtzioa berreskuratzen laguntzen dauen efektu prebiotiko bat eskaintzen dau. Bere haziak zinkean aberatsak dira, hotzeria, nekea edo depresioa prebenitzen dabenak. Kalabaza oso elikagai gomendagarria da diabetes kasuetan, bere azukreak poliki-poliki xurgatzen dabelako. Osasunerako onurak zabalak dira: sistema kardiobaskularra hobetu, digestio-aparatua, gaixotasun metabolikoak, begi-osasuna, prostatako minbiziaren prebentzioa ... eta abar luze bat.

Sukaldean, kalabazak distirutzen dau, zapore eta kolore handiko plater ugaritan presente dago. Ez da faltako krema eta saldak finetan, gozo-gozoak labean eginda edota betegarri edo goarnizioan be. Gure kalabaza, euskal barietatea, primerakoa da porrusalda edo pureak prestatzeko. Eta gozogintzan kalabaza konfiteragaz, konfiturak, marmeladak eta aingeru-ile ospetsua egiten dira.

Kalabazak erabilera asko daukoz eta ezinbestekoa da sukaldean.

NUTRIZIO INFORMAZIOA (100 GRAMOETAN)

ura	89,4 g
karbohidratoak	5,6 g
proteinak	1,2 g
koipeak	0,5 g
zuntzak	2,4 g
C bitamina	12 mg
potasio	304 mg

BA AL ZENEKIEN...?

- Ipar Amerikako indigenek kalabazagaz lurperatzen ebezen hildakoak, janari-erreserba gisa eta harentzat babes gisa.
- "Kalabazak emon" edo "kalabazak jaso" esaldia korteju-ohitura zahar batetik dator. Neskaren familiak senargaia onartzen ez bazuen, kalabaza plater bat zerbitzatzen eutsozan bazkarian
- Antxina, kalabaza hesteetako parasitoetarako erremedio gisa erabiltzen zan.
- Kalabaza on bat aukeratzeko, begiratu azalari. Leuna eta fina bada, berde egongo da. Larruazal lodikoak dira onenak, eta pisu handia dauke tamainagaz alderatuta.

KALABAZA ETA PORRU KREMA

4 laguntzat

OSAGAIK::

Porru 2

Kalabaza

Kipula 2

gatza

Kazola ur ugariagaz suan jarri. Irakiten hasten danean, gehitu moztutako kalabaza, tipula eta porru zatiak. Utzi egosten 20 minutuz su ertainean. Egosita dagozanean, xukatu eta irabiagailuagaz irabiatu. Egosteko ura ez bota, gehitu ahal izateko, eta kremari gura dogun ehundura emon. Gustura ondu.

On egin!



Landazabal atlantikoa

Paisaiaren eta giza jardueraren fusioa

Landazabal atlantikoa Urdaibaiko Biosfera Erreserba (*) identifikatzen daben lau ekosistemetako bat da. Balio handiko kultura-paisaia da, eta "*baserritarren*" lana nabarmentzen da bertan: gizakiak zuzenean esku hartu dauen ekosistema da. Pertsonak ekosistema honen ezinbesteko parte dira, bizileku izateaz gain beren bizimodua izan dan espazioa da. Landazabalak eta nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzekiek mantendu daben interdependentzia harremana garapen iraunkorren adibide da, gaur egun "*geldialdian*" dagoena.


Landazabal atlantikoa balio kultural handiko paisaia da, Busturialdeko biztanleek beren inguruneagaz izan daben antxinako harremanaren emaitza. Baserriek, belardiek, baratzeek, zuhaitziek, munek...mosaiko askotarikoa osatzen dabe, eskualdeko landa-kultura eta bertako ekoizpen-jarduera islatzen dabeena, eta pertsonak eta, batez be, baserritarrak protagonista izan dira bertan.

Kortezubiko Oma bailaran, Gautegiz Arteagako Ozollo eta Islasen, Loiolan (Arratzu), Bermeoko San Andres eta San Migel auzoetan, Axpen (Busturia), Ariatzan (Muxika)... leku hauetan Urdaibaiko Landazabal Atlantikoko eremu nagusiak aurkitzen dira. Paisaia horretan, baso atlantikoko orbanak eta ibai-sistematan tartekatzen diren belardiak

nabarmentzen dira, Oka ibaia eta haren ibaiadarragaz, bailararen erdiko arteria handi gisa.

Landazabal atlantikoak biodibertsitate propioa dauko inguruan. Bertan anfibiok bizi dira, hala nola igel berdea, apo arrunta, tritoiak eta salamandrak; suge biperinoa bezalako narrastiak; bisoi europarra bezalako ugaztun txikiak; orkatza edo azeria bezalako ugaztun handiak; eta martin arrantzalea bezalako hegaziak, intsektu aniztasun handia izateaz gain.

Landazabal atlantikoa lurraldeagaz lotura estuena duen gizakiaren esku-hartzeak utzitako emaitza naturala da, baso atlantikoak hartzen dauen jatorrizko ekosistema da.



Bitzita eta lana

Gune horretako jarduera nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza izan dira tradizionalki, eta, geroago, baita basogintza be. Gizakiak paisaian dauen esku-hartzea Neolitikotik dator. Urdaibaiko biztanleek, ingurunearen ezagutza sakon baten fruitua dan euren jardun neurtua eta orekatuagaz, mendeetan zehar erakutsi dabe naturagaz elkarbizitzeko eta elkarrekiko onura lortzeko bidea. Paisaian oso integratua dagoen arkitektura hau bere esentziaren parte da. Larreen erabilera arduratsuak eta horiek kontserbatzeko jardunbide egokiek, laborantza iraunkorragaz batera, geure kulturari eta geure imaginario kolektiboari sakonki lotutako paisaiak sortu dauz.

Urte osoan berde egoten diren larreak, apirila eta urria

bitartean hazkunde handia izaten dabenak, belarra moztu eta negurako gordetzeko aukera emoten dabenak, belarsiku bihurtu ondoren, ingurunea agortzen ez daben hedadura eta erabilera eredu daukeen ortuak eta lurraldeagaz batera bizi diren eraikuntzak landazabala osatzen dauen koadro idilikoa osatu dabe.

Baserriaren inguruko lurrak laborantzarako erabili dira, batez be etxeko kontsumorako, eta soberakinak azoketan eta merkatuetan saltzen ziran. Hasiera batean garia eta artatxikia ziran labore ezagunenak, barazki eta frutagaz batera, sagarra eta mahatsa, esaterako, hauek sagardoa eta ardoa egiteko erabiltzen ziran. Geroago iritsi zan arto, patata eta indabaren laborantzaren hedapena; horrela, produktu hauek urte osoan aseguratuta geratzen ziran. Basoko fruituak be, ezkurak eta gaztainak kasu, dietaren zati garrantzitsua ziran.

XX. mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetako industriaren goraldiak baserrian lana uztea ekarri eban. Belardi naturalen eta baratzeen eremu handiak aprobetxatzeari utzi eutsozan, eta herritarren zati handi batek baserriak utzi ebeen, herri handiagotara eta hirietara joateko; Bermeo, Gernika-Lumo eta Bilbora, esaterako. Egoera honen aurrean, eta utzitako luraren onura lortzeko asmoz, jabe askok hazkunde azkarreko zuhaitzak landatu ebezan, bereziki Monterreyko pinua (Pinus radiata edo Pinus insignis). Horrela, pinudiak ugaritu egin ziran, eta paisaiagaz bat egin ebin. Baina ez zan hori izan paisaiaren "barritasun" bakarra, berotegiak begehitu ziran. Plastikozko laborantzak ekoizpen zikloak aurreratzeko eta biderkatzeko aukera emoten dau, baserriar askok bat egin ebeen abantaila produktibo horregaz, eta gaur egun Urdaibaiko hainbat udalerritan leku handia hartzen dau. 70eko hamarkadatik aurrera, fruitu-arbolak estentsiboan landatu ziran, madariondoak, sagarrondoak (bai mahairako, bai sagardoa egiteko), mahatsondoak (txakolina egiteko) eta espezie exotikoak be bai, kiwia kasu, garrantzi handiko ustiatzekiaz, Arratzun dagozenak bezala.

Busturialdeko zati handi bat Biosfera Erreserba izendatu ebenetik, 1984an, landazabal atlantikoa, geure historiari, tradizioei eta jatorriei gehien lotutako ekosistema, babestuta dago.

(*) Landazabal atlantikoko eremu baliotsuenak EKZPTik (Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana) eratorritako hirigintza-araudiak babesten dauz.



ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA INGURUMEN OSASUNA

Laborategia

Esperientzia eta espezializazioa Ur eta Elikagaien Analisisirako Laborategi Mikrobiologiko gisa, hala nola, barneko airearena.

Aholkularitza

Aurreratutako irtenbide teknologikoen Aholkularitza, Diseinua, Aplikazio eta Kontrola.

Prestakuntza

Elikagaien eta Ingurumen arloetan prestakuntza eskaintzen dugu, pertsonen euren lanpostuetarako behar duten ezagutza-maila handitu dezaten.



San Isidro II industrialdea, Idarsolo kalea 15 - 3.2 bulegoa, 48160 Derio



JOSE MARI EGILEOR TXISTULARI TALDEA

Ez dago txistuaren soinurik bako euskal festarik, geure kultura herrikoia eta musikalari lotuta. Mundakan musikatresna honek berezko dimentsioa hartzen dau Jose Mari Egileor mundakar pertsonaia polifazetikoaren izenpean. "Jose Mari Egileor Txistulari Taldea" da herriko txistulari taldearen izena, musika ibilbide luzekoa.

Iaz 60 urte bete ziran Angel Gondra, Javier Eleizgarai, Juan Ignacio Villanueva, Tomas Alonso eta Jose Angel Garaiok bost txistulari gazte osatutako talde bat lehen aldiz kalejiran atera zanetik, txistua jotzen. (Argazkian ikusten da garai hartako taldea)

 **Busturialdeko**
mankomunitatea

Jasangarritasunagaz bat!



Beste garai batzuk ziran Jose Mari Egileorrek Mundakako herri guztiari musikarekiko zuen grina kutsatu eutsonean. Kulturazalea izatea zaila zen garai hareetan, zentsurak edozein adierazpen artistiko mugatzen eban garaian, Jose Mari Egileorrek musikaren aldeko apustua egin eban euskal kulturaren hari gidari gisa. *"Nire aitak musika klaseak ematen ebazan herrian. Elizako organoa jotzen hasi zan, bere abesbatza prestatu eban, eta abesbatzakoek antzerkia egiten eben"*, gogoratzen eban Zorion Egileor mundakar musikariaren semeak.

Apurka-apurka Mundakak amore eman eban Jose Mari Egileorren talentu artistikoaren aurrean. Ia herri osoa pasatu zan bere zurgintza tailerretik, non musika klaseak ematen ebazan. Berak irakatsi ebien mundakar gehienei txistua jotzen, hauxe bera oraindik be herriko txistulari taldeagaz mantentzen da. *"Mundaka herri musikala da. Umetan denak joaten ginan Jose Mari Egileorren txistu eta musika klaseetara. Musikari bikaina izan zan"*, gogoratzen dau maitasun handiz Benantzi Bilbao organo-jole mundakarrak, *"Jose Mari Egileor-Urdaibaiko organoak"* kontzertu zikloaren sustatzaileak.

Izen bera eramaten dau gaur be herriko txistulari taldeak, *"Jose Mari Egileor Txistulari Taldea"*. Angel Gondra, Pilar Ruiz-egaz batera, musika taldearen arduraduna da, eta nostalgiaz gogoratzen dauz Egileor familiaren etxera txistua jotzen ikastera joaten ziran urteak. *"Jose Mari Egileor izan zan txistulari taldea martxan jarri ebana, sortzailea, bultzatzailea eta aktibo mantendu ebana 84 urteagaz hil zan arte. Berak irakatsi euskun solfeoa, txistua, gitarra eta gainerako instrumentuak jotzen. Asko irakatsi euskunn."*, nabarmentzen dau Angel Gondrak.

Iaz 60 urte bete ziran Angel Gondra, Javier Eleizgarai, Juan Ignacio Villanueva, Tomas Alonso eta Jose Angel Garaio bost txistulari gazte osatutako talde bat lehen aldiz kalejiran atera zanetik, txistua jotzen. Gaur egun, sei hamarkada baino gehiago igaro ondoren, txistuak mundakako tradizioaren parte izaten jarraitzen dau: Santa Zezilia, Santa Katalina jaia, Mundakako Aratuste tradizionalak, Madalen eguna, Urte Barria, San Pedro jaiak, San Juan, San Inazioak..Mundakako jai guztietan txistuaren soinua da protagonista eta soinu banda nagusi. Baina txistularien taldeko kideak herrian jotzeaz gain, txistularien kontzentrazioetan be parte hartzen dabe, hala nola *"Urdaibaiko Txistulari Eguna"* edo *"Bakioko Txistulari Eguna"*, eta kontzertu bereziak ematen dabez be. Pili Ruiz,

Mundakako jai guztietan txistuaren soinua da protagonista eta soinu banda nagusi.

Angel Gondragaz batera taldearen arduraduna, 6 urteagaz hasi zan txistua jotzen Egileor beneratuaren klaseetan, eta gaur egun be, esku bakarragaz jotzen dan hiru zuloako flautari, txistuari, leial jarraitzen eutso. Maitasun handiz gogoratzen dau Akordan ia inoiz huts egiten ez ebenen hitzorduak edo Mundakako elizako organoaren mendeurrenaren omenezko 2018ko kontzertu magikoa.

"Lehen beti joaten ginan Akordako Santa Mañe jaietara, jotzera; guretzat oso berezia da. Nahiz eta batzuetan, astegunetan eroriz gero, zailagoa egiten jakun bertaratzea, baina ia beti joaten ginan. Mundakako Jasokundeko Andre Maria elizako organoaren mendeurrenean eman gendun kontzertua be oso hunkigarria izan zan. Bertan, mundakar kantutegiko "San Pedro Zeruetako" kantua abestu gendun, herriko abesbatzaz, "Mundakako abesbatza" eta Gernika-Lumoko "Andra Mari koralagaz" batera, Jon Artetxe musikari gernikarrak organo, abesbatza eta txistulari bandarako konposatutako pieza batean. Oso berezia da, txistuaren soinuagaz hasten daako, eta zirrarragarria da", nabarmentzen dau Pili Ruiz-ek.

Esan leike musikaltasuna Mundakan zainetan eramaten dala; izan be, Egileorrek bere tailerlean musika-klaseak ematen ebazanetik gaur egun arte, txikitatik, herriko umeak musikara hurbiltzen dira eta musikazaletasunaz *"kutsatzen"* dira. Gaur egun txistu klaseak ematen dira Mundakan, bai udal eskolako hurrei eskolaz kanpoko jarduera gisa, bai eskolatik kanpo. Horretarako, herriko elkarteak Mundakako Udalaren laguntza dauko. Udaletxeko bigarren solairuan txistu klasetarako gela bat dago, *"Txistugela"*, herriko dantza taldearen entseguetarako be partekatzen dabeena. *"Mundakan badago non ikasi txistua jotzen. Gaur egun 20 bat haur ditugu ikasten, eta ez da adinaren kontua, txistuari heldzea da kontua. Haurrak 7 urtetik 12ra doaz, eskola amaitu arte. Gero, jotzen jarraitu nahi badabe, taldearen entseguetara batzen dira, eta bertan 20 txistulari elkartzen gara"*, kontatzen dau Angel Gondrak.

Urteak joan dira lehen kalejira hartatik, garaiak aldatu egin dira, baina *"Jose Mari Egileor Txistulari Taldearen"* filosofiak eta konpromisoak bere horretan jarraitzen dau, tradizioak eta euskal kultura sustatzea, txistua funtsezko piezat hartuta.

Funeraria Tanatoria
IZARO



GERNIKA
C/ Don Tello, 18
Tel.: 94 625 83 23

izaro@funerariaizaro.es

BERMEO
Bizkaiko Jaurreria, 21
Tel.: 94 618 63 78

**TABERNA
AUZOKOA**

GERNIKA-LUMO
Tel. 94 625 16 66



3,2,1...

HONDAKIN

ZEROTIK HASIKO GARA?

Hausnartu, Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu

 **Bizkaia**
egiten